

ZENBAT BURU

Idoia Arozena

ERREPORTAJEA

Autoeskolak

GEHIGARRIA

Kale-zulotik baserria

BARRREN

2000ko ekainaren 2a
VIII. urtea - 323. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

"Karneta ateratzia nahi dot"





ELGOIBAR B.H. Institutua 2000/2001



ARREITURRE INSITTUTUA (DBH-ESO)
San Roke, 11
EZENARRO INSTTTUTUA (Batxilergoak - F.P./LH.)
Arregitorre, 2

Tel. 943 74 80 19
Faxa. 943 74 82 30

E-posta: bulegoa@elgoibarlezitek.net
web: www.elgoibarlezitek.net

ERDI MAILAKO HEZIKUNTZ ZIKLOAK (A D eredua)

Merkataritza
Ibilgailuen Elektromekanika
Karrozeria
Erizaintza Laguntza Osagarriak

GOI MAILAKO HEZKIJNTZ ZIKLOAK (Ae>o Deedua)

Administrazioa eta Finantzak
Automozioa
Ingurugiro Osasuna

Izen ematea: Ekainaren lefik 12ra arte.
Sarrerako frogarako izena emateko epea: Maiaren 12ra arte



83 profesional. Ingeniariak, kimikoak, fisikoak, biologoak, erizainak, ekonomilariak, informatikoak, historiadoreak, filosofoak, matematikoak, teknologoak, filologoak, maisu-maistrak, psikologoak, bulegariak, konserjeak, **Elgoibar, Merxiaro, Deba, Eibar** eta inguruko gazteen prestakuntza jorratzen hainbat eta hainbat urtetan.



NATUR eta OSASUN ZIEITZIEN BATXILERGOA

- Zientifiko-Tekniko aukera
- Osasun aukera

GIZA eta GIZARTE ZIENTZIEN BADZILERGOA

- Gizarte Zientzien aukera
- Humanitate aukera

TEKNOLOGIAREN BATXILERGOA



Goi-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua

Miguel ALTUNA

AE NOR

ONP...
C...
ER 052-1241

Elgoibar

2000/2001 ikasturterako HEZKUNTZA-ESKAINTZA

GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

Administrazioa eta finantzak
Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
Mekanizazio bidezko produkzioa
Proiektu mekanikoen garapena
Plastiko eta kautxogintza

ERDI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

Mekanizazioa
Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
Administrarritza kudeaketa

Norberaren gaitasunen eta nahien arabera egokitutako ibilbideak
Behar diren baliabideekin
Bide eta ate guztiak zabaltzen dituzten ikasketak
Eskola publikoa:
integratzailea eta anitza

Ibargarai 1. • Bergara -
Tel. 943 76 24 91 / 943 76 38 40
Bulego orduak 9:00etatik 13:00etara

Au-"e,frat"..Zda epea Z45/1C71C

eial;rcb..-e/r 7etig 721-a.

(9%-,-e'r2 Inattieda "Pea: azz'atfat-elr Je.x

getv9d4o tra%iikorezriv

eielotr'a e42

ezealidzatvlydo aza0e7al emavocafkup



IDOIA AROZENA

Ebentualak, XXI. mendeko esklabu berriak

Euskal Herrian langabezia poliki-poliki jaisten ari dela eta, ba ei dago pozik egoteko motiborik. Horixe difoskue, behintzat, azkenaldi honetan. Eta inguruan galdetu eta, egia da, askok eta askok, ez guztiek, lanean dihardu. Baina zein lan balditzatan diharduen, hori beste kontu bat da. "Zuk nahi ez baldin baduzu, etorriko da nahi duenik" da egungo enpresa eta kontratatzaileek gehien erabiltzen duten leloa. Diruaren, alegia, soldataren premian bizi gara gehiengo, gazte zein heldu, beraz, kontzientzia arazorik ez dutezentzat erraza da oso, beste batzuren aisialdiaren, umorearen eta bizitzeko eskubidearen kontura dirua egitea. Gainera, kexatzea norberaren kalterako izan ohi da, tematiaren ospea hartzeaz gain, alperrena gehitzen baitiote.

Atal hau ez da BARENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, hesteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Experientziaren truke dela diote batzuek "ikasita irteten duzu eta, zer gehiago nahi duzu bada?" esaten dute harro gainera, beste batzuek, beharren arabera erabiltzen dute jendea, hutsuneak tapatzeko "gaur behar zaitut, bihar ez, gaur bai, bihar ez" pertsona horiek beste egitekorik ez balute bezala. Gehienek, gainera, legalitatearen muga gaur bai eta bihar ere bai

Lana bai, baina zer nolako lana eskaintzen arri dira? Nork jartzen ditu hemen baldintzak? Ez al dira gaur egungo gazte asko eta asko XXI. mendeko esklabu modernoak?

gainditu egiten dute, eta sindikatuen oniritzi osoa ez baldin badute ere, hauek ez ikusiarena egiten dute, beraz, hor konpon!

Horregatik, auzia hau da: lana bai, baina zer nolako lana eskaintzen ari dira? Nork jartzen ditu hemen baldintzak? Ez ai dira gaur egungo gazte asko eta asko XXI. mendeko esklabu modernoak? Lau txanponen truke, urteetako ebentual bihurtzen dira asko eta asko -oporrak ere kontratu baten eta bestearen artean ematen dizkiete, ematekotan, horrela ordaindu beharrik ez dutelako- eta urteak eta gero, kontratua gehiago ezin dela berri-tu eta, akabo. Azken finean, egongo da lanpostu horren beharretan dagoen beste gazterik edo langabeturik.

Ditxosozko liberalizazioa dela eta, beti bezala jarraitzen dugu: gutxi batzuk askoren kontura bapo bizi dira eta, gehiengo bat egin eta horri guztiari aurre egin beharrean, gutxi horretxeri mesede egiten bizi da. Azken finean, patrika diru bete edukitzea guztion ametsa da, eta zenbat eta gehiago eduki, hobe. Agian horregatik, guk geuk lortu ez badugu ere, daukarnari mirespena diogu, nahiz eta dirua egiteko modu gehienak zein baino zein ustelagoak izan.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

Tx. 943 74 41 12

Publizitatea:

Et 943 74 37 04

Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com

Helbide informatikoa:

www.lhardun.com/barren

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDARIA	Eli Aizpuru
KAZETARIAK	Irati Agirreazaldegia, Asier Orbea
PUBLIZITATEA	Andoitz Agirregomezkorta
MAKETATZAILEA	Bea Ansoa
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZLA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Ainhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Aitzol Arriola, Martin Dominguez, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorrili, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguena, Iban Urizar, Amaia Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
EUSKARA ZUZENTZAILEA	Ibon Arriola
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



gizarte-ekintza
obra sozial

1DANOBAT

GOBUD
GRUPO DANO BAT

alderdikeria eta Euskal Herriaren alde apustua egin Ibarretxe jauna

"Lizarra-Garazi ez da bidezkoa biolentzia dagoen heinean", Baskongadetakoko Lehendakariak dicit. Noski, euskaldunon biolentzia, Estatuarena ez baita existitzen. Lizarra-Garazi, ETArene su etena baino lehenago sortzen da. Euskal Herriaren eta Estatu Frantsez zein Espainolaren artean dagoen Gatazka Politikoki diagnostiko zehatz bat egiteko, Irtenbidea bilatzeko sorkunde bat da. Hitzarmen honek garbi adierazten du bi fase ezberdin daudela. Bat, non konfliktua existitzen delarik baldintzarik gabe Euskal Herriak duela hitza eta erabakia onartzen duten guztiek lekua edukiko dutena; eta bigarren fasea, erabakiorra edo 'resolutiboa', non alde guztien biolentzia desagertuko den. Beti egon dira baldintzak ezker abertzaleentzat. Erakuntza Nazionala bai, baina ETA enenditzen bada. Inoiz, zure alderdia GALEkoekin Gobernuan egon zenean, hotTelako baldintza edo label demokratikoa eskatu al zenieten Galindo, Barrionuevo eta ko-lagunei 28 euskaldun hiltzen ari ziren bitartean? Hori bentajista edo txantagilea izatea da. Nahiago duzu Francoren seme politikoki manifestatu, desfilatu, doluminak einan, Euskal Herriaren alde borrokatzen dutentzat "descerebrados", "alimarias", "asesinos" hitzak erabiltzen dituzun bitartean. Noiz egon zara Estatuak edo polizia eragindako biktinnei, torturei, e.a. elkartasuna adierazten?

Oraindik gogoan dut Joxi eta Joxearen hezurak Euskal Herrira ekar-tzerakoan zure txakur-demokratak nolako jarrera eduki zuten familia terroristentzat. Presoen eskubideen alde edo Euskal Herriaren hitza errespetatzearen alde manifik, gose greba edo itxialdiren bat egiteko prest agertzen zaretenean ikusiko duzue nola desagertuko den herri kale borroka. B itartean segi Lizarra-Garaziko hitzarmena apurtzen, Udalbiliza eta Batera boikoteatzen, eta lehengo egoerara bueltatuko gara, "demokratas-violen-

tos", eta honen erantzukizuna eta errua zuena izango da.

Ni euskalduna naiz, ez vasco-espariola, eta nere herria aske eta independentea nahi dut; baina hil baino lehen. Besarkada bat preso eta iheslari guztiei.

I.K.C.

NAN 15357494

Aupa "Sanlo" Eigoibar

Lehenik esan behar dut eskubaloi zale, eta aldi berean, guraso bat naizela eta orain arte ez naizela takleko zuzendaritzako partaide izan.

Azken hamar urte hauetan gurasozuzendariak eta entrenatzaileak egin duten lana goraiatu nahi dut, gure heniarrentzat ia ezezaguna zen kirol hau dagoen tokira altsatu dutelako.

Komunikabideen bidez henitar askok jakingo dezute maiatzak 10 eta 14 artean, Olaizaga kiroldegian, Jubenil Nesken Espainiako Txapelketako azken fasea jokatu zela. Bertan, Alicante, Madrid, Kanariar Irlak, Fuengirola, Ermua eta "Unceta Elgoibar" taldeek hartu zuten parte.

Taldeen, epaileen, Estatu eta Probintzi mailako kirol erakundeen, etab. arduratzeko 10 egunetan antolatzaileak egin behar izan zuten lana aurre-ikusitako deza-kegu. Hau guztia gure gazteek kirol honen gozatzeko jarraitu dezaten guraso talde bati esker, eta lehen aipatu dudana bezala, isilean, dirurik irabazteko asmorik gabe, Elgoibarko enpresa eta denden laguntza lortu duen zuzendariaren esker. Beraien esfortzuagatik bizi ditugu une gozo hauek.

Mutilen 3 talde (kadeteak, jubenilak eta senionak) mailaz igo dira aurtengo denboraldian.

Kadete neskek kopako finala jokatu zuten, senior neskek kopako 2. eta ligako 3. gelditu dira, eta lehen esan bezala, "Unceta"ko jubenilek Estatu mailako azken fasea jokatu zuten. Gehiago eska al daiteke'?

Denori zorionak ematea bakarrik gertatzen zait eta eskubaloiaren familia handi honek orain arte bezalako poza ematen jarrai dezala espero dut.

Zorionak denori eta aupaa "Sanlo"!

J.F.

NAN 15350323

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu dalu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

❓ tIIDIL111

• **Melitonetik Madalara bitarteko bide zatian kotxeak azkarregi ibili ohi direla-eta, emakume batek honako hau galdetu du. Herri askotan **abiadura jaisteko errepidean "koska" bereziak ipintzen dituzte. Ez al dute hemen ere horrelako zerbait egiteko asmorik?****

BARRENetik Udaltzaingora jo dugu eta hau erantzun digute: "Oraingoz ez dago horrelako ezer ipintzerik pentsatuta. Trafikoari buruzko hainbat estudio egiten ari gara beste zenbait lekutan 'zebrabide altxatuak' ipintzeko, baina bide zati horretarako ez dago horrelako asmo berezirik".

• Gazte batek honako kezka hau azaldu digu: "Pasa den egun batean, azterketeta garaian gaudenez, liburutegira joan nintzen ikastera eta aulki guztiak okupatuta zeudela-eta, kanpoan egon behar izan nuen ikasten. Baina ume zaratarekin ezinezkoa zen konzentratzea. **Ez al dute liburutegian ikasteko gela handiagotzeko asmorik?"**

Liburutegitik hau erantzun digute: "Eziznekoa da, ez daukagu leku materialik, metro falta da gure arazo nagusienetarikoa bat".

🗨️ KEXAK

• Neska gazte batek honako proposamena egin nahi du. "IMHn dagoen **garanja erdi' edo 'anfiteatro' moduko aretoari erabilera gehiago eman beharko litzaioke**. Ekintza kulturalak antolatuta litezke bertan udarari begira".



BA1, ESAN?



Koro Aldaz

Organo-emaileen Elkartekoa

Ekainaren 7an Nazioarteko Organo-emaileen Eguna da, hori dela eta informazio mahaiak jarriko dituzte Elgoibarren. Denok dakigu organo emaileen beharra zein garrantzitsua den, baina aukera daukagunean ez ditugu organo-emaile izateko paperak betetzen. Egun hau gainean dugula aprobetxatuz, **Organo-emaileen Elkarteko Koro Aldazekin** izan gara berbetan.

- **Elgoibarren ba al dago organo-emaileen Elkarterik?**

- Ez, herrian bertan ez daukagu elkarterik. Baina giltzurruneko gaisotasuna izanez gero, ALCER kolektiboan sartzen gara. Beste talde batzuk ere badaude, adibidez, ACORE, bihotzeko arazoak dituztenen kolektiboa da hau. Berriagoa denez, kide gutxiago dituzten azken honek.

- **Ba al dakizue zenbat organo-emaile dagoen Elgoibarren?**

- Zehatz mehatz ez dakigu, baina hori ordenagailuko datuetan begiratuta lor daiteke. Garrantzitsuena ez da donanteak zein eta zenbat diren jakitea, gizartea mentalizatuta egotea baizik. Azkenean, transplantea egiteko beti familiartekoei eskatzen baitzaie baimena.

- **Eta zenbaterik jaso duen transplantatutako organorik?** - Giltzurruna, gibela edo bihotza bezalako organodun transplantatuok elkar ezagutzen dugu. Izan ere, ospitalean ordu asko igarotzen ditugu. Baina muin, erretina edo ehun transplanteak egin dituzten pertsonak zein diren jakitea zailagoa da.

- **Berez, denok omen gara donanteak.** -Legearen arabera bai, baina pertsona bat hiltzen denean familia da une latz horretan baiezkora eman behar duena, beraz, mentalizazioa aurrez egin beharreko lana da.


- **Zein organoren premia dago batez ere?** - Batez ere bihotz eta gibelena. Giltzurruna behar duen jendea denbora luzeagoan egon daiteke zain, horri itxaroteko dialisia baitago.

- **Edozein izan al daiteke organo-emaile?** - Bai. Hori unea helitzen denean medikuek erabakitzen dute, baina garrantzitsuena organo emaile eginez gero, familiakoekin eta lagunekin komentatzea da. Modu horretan mentalizatzen da gizartea.



L URTEURRENA

1999ko ekainaren 5ean, 82urte zituela hil zen **ALEJANDRO AIZPURUA AROSTEGI**ren oroimenez **URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian larunbatean, ekainak 10, arratsaldeko 19:00etan. Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.




G: clutzeko

Autoa beharrezko tresna da gaur egungo gizartean. Autorik gabe ezer gutxi egin daiteke, edo hori da behintzat zabalduen dagoen ustea. Gazte gehienek ilusioa da 18 urte bete orduko gidabaimena ateratea. Aste honetako erreportajearen autoeskolen inguruko hainbat xehetasun aztertutitugu. Larrañaga eta Zezen-Bide autoeskoletako Izaskun Aranburu eta Jacinto Ruizek eman dizkigute ondorengo azalpen guztiak.

Izaskunek eta Jacintok esan digutenez, "ekaina, uztaila eta iraila izaten dira autoeskolara jende gehien etortzen diren hilabeteak. Gazte askok udako oporrak gida baimena ateratzeko aprobetxatzen dituzte. Hala ere, urte guztian zehar etortzen da jendea gaur egun". Bestalde, ikasleak gero eta gazteagoak direla azaldu digute, "orain lehen baino jende gazteagoa etortzen da. Gero eta gehiago dira 16 urterekin teorikoa ateratzen dutenak, eta 18 urte bete orduko azterketa praktikoa egiten dute. Desiatzen egoten dira karneta ateratzeko". Adin nagusiagoko emakume bakan batzuk ere animatzen direla azaldu digute, "hatzuk badute gidabaimena, baina urteak daramatzate autorik hartu gabe. Autoari eta trafikoari beldurra edo nolabait esatearren, eniespetua diote. Erdi lotsatuta etortzen dira, baina ordu gutxi batzuekin nahikoa izaten dute, gidatzen ez baita ahazten".

Gidabaimena pare bat hilabetetan

Gidabaimena ateratzeko arrazoi nagusiak lanera eta ikastera joateko batetik bestera mugitu beharra omen dira. "Bestalde, autoa edukitzeko aukera gehiago daude orain, familia askotan auto bat baino



"Saiatzea eta orduak sartzeko prest egotea da gidabaimena ateratzeko modurik onena.

IZASKUN ARANBURU
Larrañaga autoeskolakoa



lebarrezkoa da ongi prestatuta egotea, gero eta gehiago mdfitv.en baitute azterketetan".

JACINTO RUIZ
Zezenbide autoeskolakoa

gehiago baitago". Gidabaimena ateratzeko behar den denborari buruz, ikasleek batzbeste pare bat hilabete behar izaten dituztela esan digute, "hatzuk buru helarri saiatzen dira, eta 15 egunetan ateratzen dute. Piska bat lasaiago hartuz gero, pare bat hilabete edo gutxiago nahikoa izaten da, ordea. Hala ere, badaude askoz denbora gehiago behar dutenak ere. Alde teorikoa ateratea gehiago kostatzen zaio gehiengorari. Alde praktikoari, berriz, gogo gehiagoz heltzen dio jendeak. Saiatzea eta orduak sartzeko prest egotea da gidabaimena ateratzeko modurik onena".

Gero eta azterketa zailagoak

Autoeskolako arduradunek aitortu digutenez, azterketak lehen baino zailagoak dira, "autoen kopurua, eta beraz, zirkulazioa asko handitu dira. Hori dela-eta zirkulazio kodea etengabe ari dira aldatzen eta hobetzen. Gauzak horrela, beharrezkoa da ongi prestatuta joatea, gero eta gehiago exijitzen baitute azterketetan. Azterketa praktikoa esaterako, aldaketa nabarmenak egin dituzte. Lehen Azkoitiko eta Azpeitiko inguruetan egiten zen, baina orain edozein tokitara eraman zaitzakete. Gainera, 25 minutuko azterketak direnez, zortez aprobetxatzen zutenen batzbestekoa asko jaitsi da. 25 minututan gidatzen dakizun edo ez erakusteko nahikoa denbora dago".

Gidatzen ikasteko autoeskolako orduak nahikoa al diren galdetu diegu arduradunei. "Gidatzen dakigula esatea ez da erraza. Beti daude aurrez ezagutzen ez genituen egoerak, eta beraz, ikasi beharrek gauza berriak. Gidatzen ikastea amaierarik gabeko prozesua da. Guk autoaren funtzionamendua, segurtasunez gidatzen eta seinaleen eta arauen ezagutza erakutsi ditza-kegu, baina hortik aurrerakoa norberaren esku dago. Irakaslearen babesa alde batera utzi eta norberak hartu behar du soltura".



0
sto

AKTIKAK

PREZIOAK

Euskal Herriko autoeskola guztietan ez dituzte prezio berdinak, baina guk gutxi gorabeherako bat atera dugu:

Izen-ematea: 19.000-20.000 pta.
Alde teorikoa: 33.000-35.000 pta.
Alde praktikoa: 4.500 pta/orduko.
Tramitazioa: 8.168 pta.
Azterketa teorikoa: 4.500 pta.
Azterketa praktikoa: 7.320 pta.
Tasak: 12.825 pta.

itekeriak

Autoeskoletako irakasleak eskarmen handiko profesionalak izan ohi dira. Era guztietako ikasleak ezagutu dituzte eta ehundaka bitxikeria dituzte kontatzeko. Honako istorio hau 'Larraticga' autoeskolako maisu bati gertatu zitzaion: Irakaslea efa ikaslea 'rekta' batean zihoazen. Bat-batean ikaslea, eskuineko intermitenteari eman, abiadura gutxitu eta baztertzan hasi zen. Maniobra bitxi hau 2-3 aldiz errepikatu ostean, maisuak zergatik egin zuen hori galdetu zion, erabat harrিতuta. Ikasleak honako hau erantzuten dio: "argilxo horrek atzetik dabrrrenari bidea lagatzeko esaten didalako". "Zer argitaz ari zara?" -galdetu zion maisuak zur eta lur. Ikasleak gasolinaren txibatoa seinalduz, "argi horrek" -erantzuten du.

Beste behin, arratsaldeko azken orduan, azkenengo ikasleak bere ordua amaitu eta auto-eskolara bueltatu zirenean, ikasleari autoa kalatu zitzaion frenatzerakoan enbragea zanpatzea ahaztu zitzaiolako. Orduan irakasleak bere erruaz jabe zedin honakoa galdetu zion ikasleari: "Zergatik kalatu zaizu. Zertan egin duzu huts?" eta ikasleak erantzun: "Auloa hotza zegoelako".



"B'eharrak bultzatuta hasi naiz gida baimena ateratzen".

ANICETO MENDIETA

Aniceto Mendieta 55 urteko elgoibartarra gidabaimena ateratzen ari da. Azterketa teorikoa gainditu berri du eta praktikoa gainditzeko prestatzen ari da orain. Bere adinean gidabaimena ateratzea oso ohikoa ez denez, bere esperientziaren berri kontatzeko eskatu diogu.

ZERK BULTZATU ZINTUEN GIDABAIMENA ATERATZERA?

Beharrak bultzatuta hasi naiz gidabaimena ateratzen, Elgoibartik Azpeitira aldatu baitzuten gure lantegia. Orain arte beste langile batzurekin batera joaten nintzen, baina besteen mende egon beharra arriskutsua da, inoiz zerbait gertatuz gero lanera joan ezinda gera naiteke-eta. Egunero taxian joatea ez da kontua eta autobus askorik ere ez dago. Beraz, gidabaimena ateratzea erabaki nuen.

LEHENAGO EZ AL ZENUEN GIDABAIMENA ATERATZEKO AUKERARIK EDO ASMORIK IZAN?

Burgosen bizi nintzanean bururatu zitzaidan, baina kamioian ibiltzeko gidabaimena ateratzea nahi nuen zuzenean eta hori ezinezkoa zenez, bertan behera laga nuen, gaurdaino.

ZER EGIN ZAIZU ZAILENA?


Nire adinarekin berriz ere ikasle garaietara buehatzea izan da zailena, mentalizatzea, alegia. Gazteentzat errazagoa da, ohituago baitaude. Dena den, ez dut arazo askorik izan eta bigarren saiakeran atera dut teorikoa.

URDURITASUNIK PASA AL ZENUEN?

Pertsona lasaia naiz, baina lehen azterketan urduri egon nintzela aitortu beharra daukat.

GAUR EGUN BEHARREZKOA AL DA AUTOA EDUKITZEA?

Orain arte herrian bertan egiten nuen lan eta autorik gabe ere ederki moldatzen nintzen. Dena den autorik ez badaukazu ezin zaitezke inora joan, batetik bestera mugitzeko aukerak asko murrizten dira. Norberak edo ingurukoren batek autoa edukitzea abantaila handia da, askatasuna ematen baitu.



An iceto
MENDIETA

Euskal Estatistika Institutuak 4 orduko etxeko lanak 135.000 pta. ordaindu beharko liratekeela dio

Ondo baloratu al dituzte etxeko lanak ?



ANA ISABEL URIBE
44 urte, etxekoandrea

Bai, etxekoandrok eitzen dogun lana ondo baloratu dabela uste dot. 4 ordntan lan asko ein Ieike.



JOSE JAVIER ARREGI
48 urte, Teknikaria

Zaila da eitzen daben lanak zenbat balixo daban jakitzia, Beste lan batzurekin konparazivan aterako zabela uste dot. Lan gogorra eitzen dabe eta merezi dabe soldatia.



MARI KARMEN AZPIAZU
57 urte, etxekoandrea

Erabat ados nao etxekoandroi soldata ordaintziakin. Bazan ordua holako gauzak eitzen hasteko, ia lortzen dogun.



JOSE MIR
52 urte, tornularia

Bai, hortik behera ezer ere ez; gehixao, berriz, ikusi ein bihar. Zaila da kalkulatzia, etxeko lanek ez dake amaierarik-eta. Biharrezkua beixantxen jata soldatia.



MARIVI ONDARRE
38 urte, administraria

Zaila iruditzen zait soldata zehatz bat jartzea, baina ados nago. Dena dela, urteak daramatzate kontu berdinarekin eta zaila ikusten dut.



ANTONIO PINILLA
69 urte, jubilatua

Ongi iruditzen zait jarri duten soldata. Etxekoandreek ere soldata bat jasotzeko eskubidea dute-eta.

BOUTIQUE DEL PAN

Enpanadak

Enbutidoak

Baserriko ogia

Bolleria

Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 Tr 943 74 33 92

iriondo TABERNA

Astegunetan 7:00etan irekitzen dugu eta asteburuetan 9:00etan

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %1 OEKO BEHERAPENA

94444 ep ~ 14/4 aprileta tewalact **16 oteetteldo,**



(5rOK42,;=



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

Tel: 943 74 10 11

[Fr..] ri [Hitt DEG RA



Aivar Gonzalez Oson

KUTHAKO langilea

- Zer sentitzen duzu hainbeste diru esku artean izatean? - Ezer berezirik ez, azken baten papela besterik ez da.
 - Osasuna, dirua eta maitasuna. Zein ordenetan jarriko zenituzke? - Osasuna, maitasuna eta azkena, dirua.
 - Etxeko lanak ala Kutxakoa? - Etxeko lanak eitzen ditxut, baina aukeran Kutxakuak nahixao.
 - BARREN ordaindu beharko balitz erosiko al zenuke?
 - Bai, dudarik gabe.
 - Zertarako apurtuko zenuke etxeko itzulapikoa?
 - Biharren bat eukitxa, edozertarako. Biaje bat eitzeko igual.
 - Beldurrik ba al diozu euroari? - Piska bat bai.
 - Zer erosiko zenuke Kutxako diru guztia zurea balitz?
 - Terreno bat, etxe bat eitzeko.
 - Zein koloretako bileteak dituzu gustukoen?
 - Urdinak.
 - Zer gordeko zenuke `kaja fuertean'?
 - Nere inguruko jendia.
 - Gogoko zerbaki bat. - Bixa, txikitatik gustau izan jata.
 - Nor ikusi nahiko zenuke leihatilaren beste aldean? Andy Garcia aktorea.
 - Diruak zorientasuna ematen al du?
 - Ez, gutxitan ematen dau, baina danok bihar dogu.
 - Diruarengatik onartuko al zenuke `proposizio indezente' bat? - Ez, ezta pentsau ere ez.
 - Dirua ala txartela eramaten duzu aldean? - Tarjetia.
 - Zertan inbertituko zenuke zure dirua? - Oin momentuan dibersifikau eingo naban. Igual parte bat jubilaziorako eta bestia riesgo haundixaoko zeozetan.
 - Burtsan jokatu al duzu inoiz? - Ez, baina jokatzian aldekua naiz, oin interesak hain baju daozenez, gehixao.
 - `Bizitzako abentura' norekin bizi nahi zenuke?
 - Nere bikotiakin.
 - Kutxan gertatutako anekdotarik?
- Behin diru eskaeria eitzeraiko orduan konfunditxu eta bihar zana baino diru gehixo eskatu naban. Zero baten kontua izan zan dana, baina 15 miloi biharrian 150 milioi eskatzia, alde haundixa da.

**HERRI-GAIN
ERRETEGIA**

San Pedro auzoa 4
«a 943 74 30 40 ELGOIBAR

**Cordon, Vilarchao, c.b..~
DEKORAZ IC)A**

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

—San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

- Kontabiitate



Kalamua, 12
ELGOIBAR
Tel-Faxa:
943 74 18 91

- Fiskal

**URKIDI
AHOLKULARITZA
ITT ERCOS ASEGURROAK**

• **Barnetegietan euskara ikasteko Udalaren dirulaguntzak**

Barnetegietan euskara ikastera doazen Elgoibarko langabetu eta ikasleei dirulaguntzak emango dizkie Udalak. Egonaldiaren %40a ordainduko du. Informazio gehiago nahi izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzura joan (Kultur Etxea) edo telefonoz deitu (943 74 43 66).

• **'Korrika'ko materiala salgai**

AEK euskaltegiak jakinarazi nahi du 12. 'Korrikalo udarako materiala, hau da, karnisetak, gonak eta prakak, AEK euskaltegian daudela salgai. Erosi nahi dituenak Plaza Txikiko egoitzatik pasa daiteke eta informazio gehiagorako 943 74 13 32 telefonora dei dezakezue.

MOTZIAN

San Pedro bailaran depositu bat eraikiko dute baserrietara Ilra eramateko

Bestalde, Udalak Ur-Konsortzioarekin hitzarmen bat sinatu du Deba ibaian depuradora jartzeko

San Pedro bailarako baserrietan ur arazoak dituzte. Hori dela-eta, bailaran bertan depositu bat egingo dute, Sig-mako depositutik San Pedrora ura eramateko. Proiektu hau egiteko ardura enpresa bati emango dio Ur-Konsortzioak, eta behin depositua egin ondoren, Udalak hartuko du ura hainbat baserrietara eramateko ardura. Hala ere, hainbat baserrietara ez da urik iritsiko. Baserri horiek Armaxio, Urkiola eta Goikoetxe dira. Piskanaka Elgoibarko baserri auzoetako ur arazoak konpondu nahi dituzte. Alkatearen esanetan, "Urruzuno auzoa izan zen lehena, ura kutsatuta zegoen eta hainbat tratamendu egin behar izan genituen. Orain San Pedroko deposituaren proiektua hor clago eta hurrengoa San Migel izango da. Bailara honetara ura nola eraman ikusi behar dugu". Bestalde, Ur-Konsortzioarekin egindako bileran 2000, urterako hitzarmen bat sinatu du Udalak.



San Pedro bailarako depositua jarri ostean, San Migel auzoko ur arazoak konpondu nahi dituzte.

Hitzarmen honen barruan sartuko da besteak beste, ur depuradora. Baliteke gainera, 2001 urterako depuradora egiteko lanak martxan jar-tzea, baina ur kolektorea aurrez jarri nahi dute. Izan ere, depuradora batek ez dauka funtziorik aurretik ur zikinak batzen ez badira.

9114Z10 **Seteztattutt Mustka Sokoltt**

MUSIKA ESKOLEN HEZKUNTZA SAILAREN PLAN BERRIKO IRAKASKUNTZA ESKAINTZEN DUGU (LOGSE):

- * 5 urterekin hasten gara.
- * Solfeoko ikasketarik ez duten pertsona nagusientzako banakako klasea.
- * Hezkuntza ofizialean sartzeko prestakuntza.
- * Ziklo bakoitza gainditzerakoan diplomak banatzen ditugu.

ESKAINTZEN DITUGUN INSTRUMENTUAK HAUEK DIRA:

*Pianoa - organoa - akordeoia - gitarra
hiolina - biola - biolontxelo perkusioa
oboea - flauta - klarineta tronpeta
fliskornoa - tronpa tronboia- txistua
saxofoia - trikitixa eta panderoa.*

oi

TALDE ASKO DITUGU

MUSIKA ESKOLEN HEZKUNTZA SAILAREN PLAN BERRIKO IRAKASKUNTZA ESKAINTZEN DUGU (LOGSE):

Banda - Txis



mattautta. zattexil

ues taldea.



Skatnaten ietik 15eza



200 ikasle inguruk hartu dute parte Inazio Berezartua Musika Eskolako jaialdian

Joan den aste amaieran Inazio Berezartua Musika Eskolako ia 200 ikaslek ikasturte amaierako jaialdiak egin zituzten. Musika eta dantza saioak eskaini zituzten hiru egunetan zehar. Guztira 40 bat ekitaldi eskaini zituzten musika eta dantza artean. Hari taldea, akordeoi orkestra, musika banda eta abesbatza, taldean aritu ziren; eta gainontzekoak, bakarka, binaka zein talde txikitan. Gurasoak eta lagunak Herriko Antzokiko besaulkietatik adi egon ziren gaztetxoei begira. Giro polita izan zen hiru egunetan.



Josu Mugerza sukaldaria omenduko dute Sanmigeldarren Egunean

Datōn'ekainaren 11n Sanmigeldarren Eguna ospatuko dute izen bereko auzoan. Goizeko 1:30ean meza nagusia izango da eta ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte. 12:30ean auzotarren arteko esku-pilota partiduak jokatuko dira eta

14:30ean bazkaria izango da. Bazkari txartelak ekainaren 7a baino lehen hartu beharko dira 'Annuea', 'Ziarda' edo 'Sahatsu' harategietan, 'Belaustegi' jatetxean eta 'Kalamua' Elkartearen. 3.000 pta.ren truke erosi ahal izango dituzte helduek, eta gaztetxoei 1000 pta-tan. Bazkal ostean, San Migel auzoko "Belaustegi" Jatetxeko Sukaldari den Josu Mugerzari omenaldia egingo diote eta gero dantzaldia izango da "Baltzola anaiak" trikitilariekin. Arratsaldeko 19:00etan auzoko gaztetxoei antolatutako ibilaldirako otarraren zozketa egingo dute.



Elgoibarko ikastolakoak Donostian

Maiatzaren 23an Ikastolako DBH leko ikasle eta irakasleak Donostiara joan ziren Kutxak antolatutako irteera batean. Bertan, besteak beste, Aquariuma bisitatu, Untzi Museoa ikusi, Chillidaren 'Haizearen Orrazira' joan eta Ondarretako hondartzan bazkaldu zuten. Ondoren, Miramoneko maketak ikustera joan ziren. Ondo pasa zutela esan digute.

Nathala Mellado

"La primera noche" finalean

Gaur ostirala, hilak 2, Nathalia Mellado abeslari gazte elgoibartarra ETB 2ko "La primera noche" saioko finalean agertuko da. Lorena Bernalek eta Txetxu Ugaldek aurkeztutako programan Nathalia Monica Naranjoren 'Sobrevivir' abestia kantatu zuen. Honetaz gain, txistek kontatu eta bihotzeko prentsari buruz ere hitz egin behar izan zuen. Nathalia ez digu esan nahi izan nork irabazi zuen lehiaketa, beraz, jakin nahi duenak saioa amaitu bitartean egon beharko du zain.



Plarreko imsleak Xoxoten eta Valderejon

Pilar 1 kastetxeko L.H. ko 5. mailako ikasleek Xoxoteko aterpean pasa zituzten hiru egun. Bertan hamaika ekintza interesgani egin zituzten, besteak beste, eskalada, timlina, inguruko mendiak igo... Ikasleek ondo pasa zuten eta itzultzeko asmoarekin etorri ziren. Gainera, bertako begiraleek eta sukaldariak zein ondo hartu zituzten azpitnarratu nahi izan dute. Bestalde, D.B.H. 3koak Valderejoko parke naturalean izan ziren eta hauek ere mendian ibilakliak egiteko aprobetxatu zuten egonaldia.



MAIATZAREN 26ko PLENOA

Musika Eskolako obrak egingo dituen enpresa kontratatze-ko oinarriak onartu zituzten plenoan

Bestalde, Begoña Juaristi izendatu dute bake epaile

Joan den ostiralean, maiatzaren 26an, plenoa egin zen Udaltexean. Plenoan aztertu zituzten gaiak, besteak beste, Kontserbatorio berriaren laugarren fasea egingo duen enpresa kontratatze-ko oinarriak, Arriagako arau subsidiarioak eta bake epailearen aukeraketa izan ziren.

Lehenengo, 1999ko aurrekontutik egin gabe gelditu diren obrak zein diren azaldu zuten. Izan ere, obra hauek egitea premiazkoa da, eta horiek finantzatzeko nahikoa diru ez zegoenez, indarrean dagoen aurrekontua egokitu beharko da. Obra hauen artean daude, kontserbatorioa, San Rokerako bidea, Karakoleko konponketak eta Sigmako ur eta saneamendu sarea. Guztiek aho batez onartu zuten Udaltoko gestioaren bidez Iortutako diruak obra hauetan inbertitzea.

Musika Eskolako obrak azken fasean

Musika Eskola eraikitze-ko obrak laugarren fasera iritsi dira jadanik, eta atal hau egingo duen enpresa kontratatze-ko oinarrien onarpena izan zen pleno-ko beste gaietako bat.. Guztira 132.898.883 pta.ko kostua dute lanek. Horietatik 63.165.523 pta. iazko aurrekontukoak dira eta gainontzeko 72.587.518 pta. 2000. urteari dagozkionak. Alderdi guztiek onartu zituzten oinarriak, baina EAk eta EHK hurrengoan mota honetako oinarriak euskaraz idaztea eskatu zuten. Oinarriak mahai gainean jarri ostean, interesa duten enpresek beraien proiektuak aurkeztu beharko dituzte eta ondoren, interesgarriena aukeratu dute.

Arriagako moldaketa

Bestalde, Arriagako guna industrialari dagozkion arau subsidiarioen moldaketari buruz ere hitz egin zuten plenoan. "Danobat" enpresa handitze-ko asmoa dagoenez, eta ondorioz, ur depuradora ere lekuz aldatu behar denez, aldaketak onartu behar dira au-



Guztira 132.898.883 pta.ko kostua dute Musika Eskola berria eraikitze-ko lanek.

rrera egiteko. Plenoan zinegotzi guztien baietzarekin onartu zen moldaketa.

Bake-epailearen onarpena

Plenoan elkartutako zinegotzi guztien onarpena jaso zuen, 2000-2001 ikasturterako Udaltoko langileen lan baldintzak arautzen dituen akordioak. Hitzatmen hau Arcepafek, Gipuzkoako Udaltok eta Diputazioak batera egindakoa da.

Bukatze-ko, aukeratutako bake epaileari baiezkia eman zioten zinegotziek. Guztira, 8 hautagai aurkeztu ziren postu honetarako, eta Udaltoko Baimen Batzordeak Begoña Juaristi Fernandezek izena aurkeztu zuen plenoan. Esan bezala, aho batez onartu zen plenoan bake epailea eta orain Euskal Herriko Justizia Auztegi Nagusiak izendatu beharko du bake epaile.

Trafikearen azterketa egin zuten maiatzak 30ean Egoibarren

Leber enpresako langileek autoen joan-etorriak kontrolatu zituzten

Joan den asteartean, hilak 30, Elgoibarko trafikoaren azterketa egin zuten goizeko 7:00etatik gaueko 21:00ak bitartean. Horretarako autoek hirigunean egingako joan-etorriak kontrolatu zituzten, besteak beste, nondik atera ziren, non apartatu zuten, zenbat denboran egin zuten ibilbidea eta baita non bukatu zuten ere. "Leber" enpresa ari da ikerketa egiten eta enpresa horretako



langileek autoen matrikulak hartu zituzten, autoen mugimendua aztertze-ko. Langileak P. Muguruza kalean, Urruzuno kalean, Aita Agirre Plazan, San Inazio kalean eta Trenbide kaleko zati batean, tren geltoki ondoko aparkalekuan eta Santa Ana Plazaren aldamenean egon ziren. Beraz, egun hartan norbaitek zuen matrikula zenbakia hartu zuela eta kezkatuta bazaudete, jakin

trafikoaren ikerketa egiteko baino ez dutela erabiliko.

Zain dezagun natura



Udara gainean dugu eta garai honetan jendeak arriskuan ipintzen ditu naturagutzeak ematen dizkigun aberastasunak. Ingurua ez da behar bezala zaintzen eta horren ondorioak zoruak, landareek zein animaliek pairatzen dituzte. Igandean jai dutela-eta, eguraldi eguzkitsua dagoela aprobetxatuz mendi aldera joan ohi da jende asko eta hauek errespetuz jokatz ezean, kalteak handiak izan ohi dira. Dettok nahi izaten dugu mendiko berdetasunaz gozatzea, baina sorpresak handiak izaten dira nekazal inguruneetara gerturatu eta zakarrak bilatzen ditugunean. Hondakinek mendeak behar izaten dituzte desegiteko eta zakarrek ingurua itsusitu ohi dute.

Mendira joan eta honako aholku hauek jarraituz gero nekazari eta abeltzainek eskertuko dizuete, baita naturak berak ere:

- * Bidezidorrak erabili eta laborantzako lurretatik ez igaro, hauek hondatu egin baitaitezke.
 - * Zakurrarekin joanez gero, zaindu. Ganaduak larrean egonez gero, ez aske utzi.
 - * Animaliek zelaietatik alde egin ez dezaten itxidurak ongi isten saiatuko gara.
 - * Zakarrak etxera eraman, baldin eta inguruan kontenedorerik ez badago.
- Sua egin nahi baduzue, arauak errespetatu.
- * Landareak eta animaliak zaindu. Ez Iorerik moztu eta animali txikiak ere ez harrapatu.

Igandetan mendira joateko ohitura dutenez gain, inguru horietako pistak erabiltzen dituzte egunero baserritarrek. Hori dela eta, ingurua zaintzeko eta garbitzeko beharra ikusi dute Mendi Nekazaritza Elkarteak eta lan horretarako desbrozadora bat erosteko proiektua jarri dute martxan.

Desbrozadora berria

Debarreneneko baserri bideak garbitzeko eta mantentzeko traktorea eta desbrozadora erosiko ditu aurki DEBEMENek. Gipuzkoan hainbat Nekazaritza Elkartek jadanik martxan daukate garbiketa zerbitzu hau eta beharrezkoa dela ziurtatu dute.

Lehen baserritarrek auzolanean garbitu ohi zituzten bide bazterrak. Orain, berriz, Iangile batek moztuko ditu nekazal guneetara joateko bide ertzetan dauden belarrak eta sasiak. Behin belarrak moztutakoan makinak berak xehetzen ditu, baina bideak guztiz garbi gera daitezen, baserritarrek beraiek belarra moztu eta egun batzuk beranduago taldean joan eta garbitzea da nahia edo asmoa. Oraindik makina erosi gabe dago, baina **DEBEMEN** esan digutenez, asmoa uda aurretik desbrozadora bere lanak egiten hastea da.

Makinek guztira 10.000.000 pezetako kostua izango dute eta hortik %65a DEBEMENek ordainduko du, gainontzeko ordainketari Debarreneneko Udalek egin beharko diete aurre. Behin martxan jarritakoan, Udalek ordainduko dute lan horrek eragiten duen kostua, hau da, herri bakoitzean egiten diren orduen arabera. Dena den, baserritarren batek berea den pista bat garbitzea eskatuz gero, berak ordaindu beharko luke.

Honela bada, baserritarrek zein natura gustuko dutenek mendiko bideak garbi aurkituko dituzte laster. Baina gogoratu, nekazal inguruetara hurbilduz gero, aurrez emandako gomen-diok jarraitu behar direla, natura zaindu behar dela, alegia.

AUZO-ALKATEAK aurrez aurre

Herrian alkate bakarra dugula uste du askok, eta berez Elgoibarko alkatea bat da. Baina askok ez dakiena, herriko nekazalgune bakoitzean auzo-alkate bat dagoela da. San Roke, San Lorentzo, Arriaga eta Urruzuno auzoetan 4 alkategai aurkeztu ziren, bailara bakoitzeko bat, beraz. Ez da hauteskunde beharrik izan. Gainontzeko bi au-


zoetan, San Pedron eta San Migelen, hautagairik aurkeztu ezean, auzotarrek boto bidez aukeratu dituzte alkateak. Alkateen eginbeharra baserriarren eta Udalaren zein DEBEMEN elkartearen arteko bitartekaritza egitea da, baita auzoko jaiak antolatzea ere. Herritarrek ezagutu di-
Izazuen, alkateak gure artera ekartzea erabaki dugu.



J. JUAN BARRENETXEA
Ikaslea
Aprai: Beheakoa baserria

ARRIAGA


Aurten du lehenengo urtea auzo-alkate bezala. Bera ez da alkatetzarako aurkeztu, baina auzotarrek hala nahi, eta hemendik aurrera San Antolingo ordezkaria izango da. "Lehengua urte morduan zauan, eta aldatzia nahi zaban. Lagunek adar jotze moduan esan zebe ni ipini bihar ninduela eta auzokuak ere konforme". San Antolinen auzotarrentzat lokal bat egin nahi dute eta lan horretan ari dira. "Beste auzuekin konparauta ez dakau ezer, tailar mordo bat besterik ez. Danok juntatzeko lokal bat eixia da gure asmua. Ia udaletxiak laguntzen digun, ze oin arte San Antolinen rotondako eskultura besterik ez dau ipini, eta haura kostau zanakin lokala eta beste zeozer ere eukiko gendun". Alkate gaztea dauka San Antolinek eta auzoari etorkizuna ikusten dio, "gure auzuan badao nere edadeko jendia baserrixan lan eitzen dabana eta bertatik bizi dianak, ez daka inork kalera bajatzeko asmorik".



JAVIER ARRIZABALAGA
Enpresaria
Belarreta baserria

SAN MIGEL

16 urte daramatza San Migel auzoko alkatetzan. "Udaletxian baserriarren kontzejal izan nintzan eta handik urten zaban gero auzo alkate sartzeko ideia". Auzolana izan da San Migel bailarako ezaugarrietako bat eta aurrerantzean ere horrela jarraitzeko asmoa dute, alkateak hehinzat hala dio. Buruan proiektu asko dauzka eta horien berri azaldu nahi izan digu. "Gure helburu printzipala entidade juridiko bat eixia da. Bestiak beste, auzoko gaztiekin bertan bizitzia nahi dabelako eta oingo legiak auzuan etxiak eraikitzea gero eta zaila da. Urakin ere gero eta gaizkixao gabiz. Lokal soziala badau San Migelen, baina utilidade gitxi ematen diou eta reformatzia nahi dou auzoko andrekin ibiltzeko. Buzoi berriak ipintzekotan dabiz, kontenedore gehixao bihar diala ere pentsatzen dou...". Auzotarrekin elkartu eta beraien kezak jasoko ditu Arrizabalagak, gainontzeko beste auzo-alkateen antzera.




UNAI ELORZA
Basoko langilea
Laprcanendi baserria

SAN ROKE

Duela oso egun gutxi esan zioten Unairi hemendik aurrera bera izango dela San Rokeko alkate eta berarekin hizketan jardun genuenean ez zekien argi zein diren egin beharTeko lanak. "Inork ez zuan nahi eta jende nausixak gaztiak sartu bihar ginala esan zabanez, herotu eta oin alkate lanak nik ein bihar". Bailaran dauden arazoak eta -kontuak auzotarrekin komentatu eta denon artean irtenbidea topatzen saiatuko direla esan digu Unaiak. "San Rokeko ermitxia barrutik konpontzen ari gera oin, eta hasi berri naizenez, ez dakit beste proiektorikan eongo dan, ein biharko dia gauzak". Alkate gaztea den aldetik ez dio gazteen artean baserriari etorkizun handirik ikusten. "Jendiak nahixao dau taillarrian lan eixia. Gaztetan etxian lan ein eta badaki zer dan baserriko lana. Hala ere, oin lanian ibili eta gero baserrixan zeozer eitzen dou, belarrendua dala edo ganauak zaindu bihar diala...".

URRUZUNO


Boluntariorik ez zegoenez, auzotarrek bera izendatu zuten joan den abenduan alkate. "Lehengo alkateak laga egin behar zuen eta auzoan proiektu garrantzitsuak daudenez, norbaitek alkate postua hartzea komeni zen". Urruzuno auzoan hainbat proiektu daude eta horiei buruz hitz egin digu Jose Migelek. "Auzora joateko paso nibela kendu eta tuneletik bide berri bat jarriko dute, Albitxuriko industrialdea ere hor dago eta baita zabortegia handitzeko proiektua ere. Nik hauen berri eman behar diet auzotarrei". Alkatearen esanetan, "orain arte nahiko auzo ezezaguna izan da, baina hemendik gutxira industrialdearen bidez ezaguna egingo da. Hori dela eta azpiegiturak hobetuko dira, baina era berean intimitatea galduko dugu". Auzoaren alderdi positiboan artean kaletarrek mendi aldera bizitzera joateko duten joera aipatu digu Jose Migel Azkoitiak, agian berak hala egin duelako izango da.



JOSE MIGEL AZKOITIA
Injinerua
Iturbira etxea

SAN LORENTZO


Bigarren aldiz izango da San Lorentzoko alkate Pello Rubio. "Beste norbait presentau bazan nik ez nakan segitzeko asmorik. Uste dot aldatu biharreko puesto bat dala". Aurreko agintaldian hainbat gauza lortu ziren Sallobenten. "Sargoateko erromerixia 30 urte ondoren auzotarrok berriz ipini gendun martxan eta Artazo baserrixa erre zanian ere auzoko jendiak zeozer ein gendun". Hala ere, oraindik badira gauzak egiteko auzoan eta Udalaren laguntzaz lortuko direla uste du Pellok. "Frontoi berri baten atzetik gabiz, komunak ere biharrezkuak dia eta asadore bat ere nahiko genuke, ez bakarrik auzotarrantzat, kaletik datorren jendiak ere eskatzen ditxu gauza hauek". Laguntzak jaso arren nahikoak ez direla uste du. "Baserritarrok jardineru lana eitxen dogu askotan, gero kaletarrek mendi ingurua astebukaeretan disfrutatzeke, horretarako administrazivan laguntza ezinbestekua da".



PELLO RUBIO
Nekazaria
Txillarre baserria

SAN PEDRO

Auzoan botazio bidez aukeratu dute Jesus Mari Azpiazu. "Inor ez zan presentau kandidato moduan boluntarixu eta neri ere ez jatan interesatzen, baina bailariak elejidu ninduanez, onartu in bihar". Udaletxearen laguntzaz hainbat gauza egin dira San Pedro bailaran. "Proba plaza berrixa hukatzen gaude eta San Pedro egunian inagurauko dou eta lokal soziat bat eitxeko asmua ere badakau. Frontoia estaltzia ere komeniko litzake, baina dana ikusi in bihar". Baserritarren beharrei buruz galdetu diogunean, San Pedmko baserri batzutan urarekin dituzten arazoak aipatu dizkigu Jesus Marik. "Proiektu bat badao Moruraino ura eruateko eta gero ikusi in biharko da beste baserrixetara ura zela eruan". San Pedroko alkateak aukera hau aprobetxatu nahi izan du auzotarrei denak elkartuz eta dituzten arazoei buruz hitz eginez gero gauzak hobetu daitezkeela esateko.



JESUS MARI AZPIAZU
Mekanikoa
Irunaberri baserria

SAGARRAGA baserria

Sagarraga baserrira inguratu eta baratzean lanean aurkitu dugu Angel Aitzurra eskuan hartu du eta atari aldamenean eseri gara berarekiz berbetan egiteko. Angel beti bizi izan da baserrian eta baita bere aurrekoak ere. "Aitxonak erositxako baserrixa da hau. Izatez itziartarra zan baina ezkondu, Sagarraga erosi eta geroztik hemen bizi izan gera".

San Migel bailaran baserri asko dago, baina baserriko lanetik bizi den bakarra Sagarraga da. "Lehen gehixao ginan, baina jendiak kalera ein dau eta piskanaka bakanak gerala konturau gera. Hala ere, hori ez da hemengo gauzia, danian pasatzen da hola".

Esne behiak zaintzen irabazten dute eguneroko ogia Loiola-Txurrukatarek eta horrek lotura handia duela esan digu Angelek. "Esne behiak jai eta aste, goizian eta gabian jeitzi bihar dia. Haragitakuen aldi lan haundixa ematen dau. Aitxa-zanak haragitarako eukitzen zitxun eta ni oin dala 22 urte hasi nintzan esnetakuekin. Ikusten naban baserrixan segitzekotan esnetakuekin hasi bihar zala. Gaur egun baserrixak ez daka irtenbiderik haragitako okeliatik, terreno gitxi dao". Iaz arte kalean saltzen zuten esnea, baina orain dena zentralera eramaten dute.

Seme-alaben jarraipena

Oporrik ez omen dute ezagutu Sagarragan, baina orain, noizean behin, astebururen batean egiten dute eskapadaxorik. "Semiak hasitxa daude eta jaijetan norabaitxera jundakuan lasaitxuo eoten gera. Lehen bodetara edo nunbaitxera jun eta iluntzerako behiak batzera etorri bihar izaten zan". Ondorengoek lagundu arren zalantzak agertu ditu Angelek baserriaren jarraipenean. "Nik ez dot uste baserrixari lagako diuenik, baina oin bezela ez dot pentsatzen segiduko dabenik. Guk ere ez dogu segidu bestiek bezela. Lehen eskulana eta sorolana eitxen zan asko, eta oin ez da holakorik eitxen. Baserriak ez dia ezkutauko, baina aldau bai". Aurrerapenen artean belar bolak aipatu dizkigu Angelek, "nik oin arte sekula ez ditxut ein, baina aurtent batzuk ein ditxut".

Behiak makinekin jeitzen dituzte Sagarragan. "Aurrerapen ikaragarri-



Sagarragako sagarrak

Baserriaren izenak garbi erakusten duen bezala, sagarrak ez dira falta San Migelgo baserri honetan. "Nere aitxixak sartu zitxuan eta piskanaka zahartu ein dia, baina oindiok I 00 bat sagar eongo dia. Sasoi baten sagardaua eitxen genduan, baina aspaldixan gutxiao". Udazkenean lasaiago ibiltzen dira baserriko lanetan eta sagardoa egiteko garaia orduan denez, eta langintza hori gustukoa duenez, noiz edo noiz egiten du Angelek oraindik sagardoa.

xak ein dia baserrixan neure akorduan. Gauzia da diru asko bihar dala, baina makina asko dao". Dena den, gastuei aune egiteko dirulaguntzak jasotzen dituzte.

Auzolana

San Migel bailaran auzotarrak elkarrekin oso ongi konpontzen omen dira eta auzolanean gauza asko egin dituzte. "83ko ufalak ezkerro agosto guztietan auzolanian zeoze ein dou. Frontoia dala, elizia dala..". Horretarako astirik ba al duen galdetu diogunean, seguru bota digu erantzuna Angelek: "Astixa gogua eruatzen dau, gogua euki ezkerro nunbaitxetik ataratzen da denboria".

Ortua ere badute Saganagan, baina baratzetik ateratakoa etxerako izaten da, "labrantzarik ostantzian ez dou eitxen, etxerako berdura piskat".

Angel Loiolari asko gustatu izan zaio auzoko zahaneri entzutea eta bere baserrian gertatutako kontu bat ekarri digu gogora. "Artua bota bihar izaten da sorora gero bakiak urten daixen. Artua emetakuan baki bota zaben sorora pusketa baten, eta beste zati bat botabe

gerau zan. Amamak horrekin akordautu baki bota zaban eta gerotxua aitxixak berdina ein omen zaban. Urte harretan baki pili izan zan".

SAGARRAGA

Auzoa: San Migel.

Bizilagunak:

Angel Loiola, 46 urte; Mila Txurruka, 43 urte; Unai Loiola, 21 urte; Ander Loiola, 19 urte; Eneko Loiola, 15 urte; Amaia Loiola, 4 urte.

Lur hedadura:

23 hektarea.

Esplotazioa:

35 esne behi, idiskoa, 6 behor eta etxerako baratz.

Adolfo Martin Gonzalezek 'Rodisa'n egiten du lan eta aisialdirako afizio berezia dauka berak. Lagun batek zirikatuta irratizaletu zen eta orain irrati bidez kanpoko jendearekin hitz egitea asko gustatzen zaio. Duela gutxi 24 orduko emisioa egin dute irratizaletu taldekoek eta hori aitzakitza hartuta Adolfo-ekin hizketan jardun du gu zaletasun honi buruz.

ADOLFO Martin

internet azkarragoa da, baina nahiago dut irraticz komunikatzean

—Nola sartu zinen irratizaletu elkartearen?

Lagun batek irrati emisora bat zeukan, eta bere etxera joan nintzen batean irrati utzi zidan. Nire etxean probatu nuen, aparatuarekin geratu eta gero, taldean sartu nintzen.

—Zer da irratizaletua izatea?

Beste edozein zaletu bezala, zerbait gustuko izatea. Ka.su honetan irrati gustatzea eta ezagutzen ez duzun jendearekin irrati bidez komunikatzea. Batzutan irraticz norbaitekin hitz egin eta elkar ikusteko geratu izan gara eta sorpresak hartu ditugu aspalitik elkar ezagutzen genuela ikusita. Oporretara noanean ekipoa eta antena aldean eramaten ditut beti.

Zer behar du irratizaletu batek?

Batetik gogoa, eta beste-fik irrati emisora bat eta antena. Denborak aurrera egin ahala gustuko duenak ekipoa

handiagoa erosiko du, teiltuan antena handiago bat jarriko du, baldin eta bizilagunek lagatzen badiote...

- Elgoibarko taldean zenbat lagun zaudete?

- 1996an 30 lagun inguru geunden, baina piskanaka jaisten joan da, orain 12 besterik ez gara. Elkarteko kideok gero eta gutxiagotan biltzen gara, bakoitzak bere zereginak dituelako, baina gaude-nok hainbat ekintza antolatzen ditugu, eta baita beste batzuetan lagundu ere.

—Zein ekintzatan hartu duzue parte?

- Duatloia koordinatzen dugu, lasterketako zenbait puntutan denborak emanez. Bestalde, datorren hilaren 4an, moto karreran ere antolatzaileri lagunduko diegu. Gainera, urtero 24 orduko lehiaketa egiten dugu.

— Zertan datza 24 orduko lehiaketa hori?

- Eguna 6 modulotan ba-

natzen dugu eta 24 ordu horietan irratizaleek 6 aldiz kontaktatu behar dute gurekin. Batzuetan zarata dela-eta ez da posible kontaktu guztiak egitea Ondoren, kratizaleek tarjeta bat bidaltzen digute egindako kontaktuak azalduz, eta zozketa batean sartzen dira.

—Denbora asko eskaintzen al diozu afizio honi?

- Bakoitzak ahal duen denbora ematen du honetan. Hasieran, hondoraino sartu ohi da jendea, nola funtzionatzen duen jakiteko irrikaz, eta hori beti ez da ona izaten. Hasi berriek antenaratu orduko beste aldean norbait egotea nahi izaten dute eta hori ez da beti posible.

—Internetek aurrea hartuko al die irratizaletui?

- Internet azkarragoa da, baina nik, esaterako, etxean badut internet eta nahiago dut irrati. Probatu eta uhinetan norbait badago berarekin hitz egiten dut. Irrati ezagutzen duenak, baliteke internet probatu ondoren berriz irrati itzultzea. Orain dela 5 urtekin hona asko jaitst da zaletasuna. Horren arrazoiak ez daude argi, baina baliteke batzuk kontakturik lortu ezean atzera botatzea. Badira irratizaletu arauak betetzen ez dituztenak ere eta horrek eragina du.

Zorrotzak al dira irratizaletu arauak?

- Ez, kontua da besteak errespetatzea eta ez iraintzea. Ikasteko ez da gauza askorik behar eta hasi berrientzat politena irrati entzutea da gustatuz gero jarraitzeko.

— Nongo jendearekin hitz egin duzu?

- Ez dakit ingelesez hitz egiten, eta horrek asko mugatzen nau. Baina Kubako, Letoniako, Estoniako... irratizaletu-ekin egon naiz.

EESTEK ESANA

"Irratiaren maitale jakintsua da, baita pertsona jatorra eta arduratsua ere." DAVID MEKOLALDE, 'G.A.R.E. - E.I.L.T'ko Presidentea.



a/ • • JAIOTAKOAK • • •

- Irene Makazaga Nuñez (Maiatzak 19)
- Marcos Rodriguez Blanco (Maiatzak 20)
- Ander Nogales Babarro (Maiatzak 22)
- Oier Eguren Arregi (Maiatzak 27)

• • EZKONDUTAKOAK • • •

- Angel Maria Carril Gil eta Maria Milagros Mancebo Gomez (Maiatzak 20)
- Francisco Migel Alvarez Leo eta Nerea Aranberri Garcia (Maiatzak 27)

• • • HILDAKOAK • • •


- Joakin Gurrutxaga, 80 urte (Maiatzak 9)
- Beatriz Flora Etxaniz, 78 urte (Maiatzak 23)
- Javier Etxeberria Markiegi, 50 urte (Maiatzak 24)
- Agustina Lopez Carreño, 72 urte (Maiatzak 25)
- Ignacia Mendizabal Urretabizkaia, 83 urte (Maiatzak 31)

**.asefe
Lizarrakie
Azpiazu
cij 899-1993)**



- 1899ko martxoaren 20an jaio zen Lizarralde eskudoa duen Azkoitiko Olaso bailarako "Iraolatzeta Torre" basenian, . Sei anai-arreba izan ziren, bera, bigarrena. Bailaran bertan zegoen Etxeberriko eskolan ikasi zuen, etxetik gertu. Gaztea zelarik etxeko lanak egitea tokatu zitzaion, baratzean, ofiategian, soroan, etab. Ondorioz, ez zuen denbora asko egin eskolan.
- Langile amonatu izan zen. Astoa kargatu eta Azkoitiara salmentara joaten zen baserri handi hura aurrera atera behar zela-eta. Lagunekin Madarixa, Larraskanda eta Attola-Kurutzeko enomrietara joan ohi zen.
- Beranduago, Josefa `maiorazka' geratu zen, zuten anaia bakarra Loiolara jesuita joan baitzen.
- *Katalotza-Amendrko Jose Ma Astigarragarekin ezkondu zen Azkoitian eta 7 seme-alaba izan zituzten: Tomas, Asun (moja), Valentin, Antonio, Jose IVIa, Inaxio eta Jose Luis (Peruko Yirumagan dagoen obispo jatorra). Errain eta suhiak berriz, Josefa Astigarraga, Visitacin Bastida, Pilar Uria, Ma Kannen Sodupe eta Juanita Izagirre.
- Sorginen garai hura ongi ezagutu zuen emakume hau I 956an etorri zen Elgoibarrera bere familiarekin. Egin zituen bidaia bakarrak Itziar, Arrate eta horrelako lekuetara izan ziren. Asko jota, San Antoniora. Josefa ongi moldatu zen herrian, familia ederra hazi zuen eta baita "urrezko ezteiak" egitera iritsi ere.
- Trebea izan zen arropa josten eta sukaldari ona ere bazen. Sinesmen handikoa izanik, errezoekin mahaia bedeinkatu ohi zuen beti. Bere zaletasunen artean euskal kantak, irakurtzea eta 'Jubilatueta' kartetan lagun artean aritzea zeuden.
- Denbora gutxian egon zen gaixo eta I 993ko uztailaren 27an hil zen 96 urte zituela.

Juanito Gorostiza



**ETXEBERRIA
Hileta zerbitzua**

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

**NOR3ANAKOEI eta KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak.**

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 608 77 07 01



ste honetako erretratu zaharra. Mausitxa baserriko Pakita Ansolak laga digu. Lizundia Azpi baserrian duela 58 urte inguru ateratako argazkia da, auzolanean garia jotzen egindako ekinaldi batean. Hauek dira bertan agertzen direnak:

Goian, ezkerretik eskumara: Luzia Basurto (t)(Lizundia Goikoa), AsunciOn Ansolak (Kortazabal), Facunda Aranberri (t)(Gorriñaga), Donato


Arrizabalaga (t)(Lizundia Goikoa), Maria Galarraga (t)(Lizundia Azpikoa), Jose Luis Agirregomezkorta (Munio/a), Benito Ansolak (t)(Kortazabal), Jose Ignacio Juaristi (Txabola), Tomas Ansolak (t)(Mausitxa) eta Jose Fernandez (Lizundia Azpikoa).

Lurrean jarrita (Ezkerretik eskumara): Jose Mari Agirregomezkorta (t)(Mudola), Jeronimo Aranberri (t)(Gorriñaga), Francisco Uria (t)(Lizundia Goikoa), Bautista Galarraga (t)(Lizundia Azpikoa), Isidro Askasibar (t)(aveberri-metal) eta Migel Juaristi (t)(Txabola),




ESKERTZA

2000ko maiatzaren 30ean, 84 urte zituela hil zen **JOSE MARIA ZABALA**. URANGAren sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




ESKERTZA

2000ko maiatzaren 24an, 50 urte zituela hil zen **JAVIER E'TXEBERRIA MARKIEGUREN**. Olazabal baserriko sendiak, bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





"Eskubaloia laga eta gazteei bidea libre uzteko momentua heldu zait"



Zigor Esnaola

- Adina: 28 urte

E Eskubaloian jokatzeko postu bat?

Pibote bezala jokatu izan dut beti baina zentral postua gustatzen zait. Azken denboraldi hau zentral moduan jokatu dut.

- **Gustuko jokaldi bat?** Beste irtenbiderik ez dudanean atezainari bizkarra emanda jaurtitzea.
- **Eskubaloia talde bat?** Bartzelona.
- **Miresten duzun jokalaririk?** Wenta poloniarra eta Olsson atezain suediarra.
- **Gustuko beste kirolirik?** Taldean jokatzeko den edozein.

- **IMH taldea bigarren nazional mailara igo da, zer moduzko denboraldia izan da?** -Oso denboraldi gozorra izan da, batez ere, partidu asko jokatu behar izan ditugulako. Hala eta guztiz indartsu iritsi gara azken txanpara eta igorera fase ezinhobea jokatu dugu. Bigarren sailkatuari, Zarautzi, 4 puntuko aldea atera dugu eta datorren urtean bigarren nazional mailan jokatu dugu. Elgoibarrak inoiz jokatu duen mailarik altuenean, nik dakidala behintzat.

- **Datorren denboraldiari begira zein dira taldearen aukerak?** -Dauzkagun jokalariekin maila pobta eman dezakegula uste dut. Orain arteko disziplinarekin eta seriotasunarekin jarraituz gero irabazteko ez, baina mantentzeko aukerak ditugula uste dut.

- **Arraten maila altuagoetan jokatu zenuen, ze ezberdintasun daude?** - Bai, 'Arrate'n nenbilenean bigarren nazional mailan eta ohorezko mailan jokatu nuen. Goiko eta beheargoko mailen arteko ezberdintasuna defentsan igartzen da batez ere. Ez gaude kolpeak jasotzera ohituta eta abiadura ere handiagoa da. Gainera, talde askok goraoko mailetan talde nagusiak dituzte eta astean 4 aldiz entrenatzen dute. Hori dena igarri egingen da.

- **Urte batzutan entrenatzailerik gabe egon ostean igarri al da entrentzaileak egindako lana?** -Emaitzak ikustea besterik ez dago, kalitatezko taldea daukagu, baina entrentzaileak beste seriotasun bat eman dio taldeari eta igorera

era lortu dugu. Pasa den urtean etorri zen, eta piskanaka bere filosofia ezarri du. Orain arte senior mailan ez zegoen fundamentu askorik. Borondaterik onenarekin ahal zutena egingen zuten, baina ez zegoen helburu zehatzik.

- **Eskubaloia lagatzeko asmotan zabiltzala entzun dugu.** -Nire asmoa aurten lagatzea zen, baina entrenatzaileak eta zuzendaritzak urtebetez janaitzeko eskatu didate. Talde osoa lagatzea daukagu eta esperientziadun jokalariek edukitzea komenigarria dela uste dute, bigarren nazional mailara ohitu artean behintzat. Beraz, eskubaloia laga ala unebete jarraitu erabaki gabe daukat.

- **Zein dira eskubaloia lagatzeko arrazoiak?** -Urte asko daramatzadala eskubaloian, ia 15 urte asteburuero partiduak jokatzen. Oso gustura eta pozik ibili naiz, baina lagatzeko momentua heldu dala uste dut eta gazteei bidea libre laga.

- **Aurki ezkondu egingo zara. Izan al du zerikusirik zure erabakian?** -Bai, baita ere. Nire bizitzako beste fase batean sartuko bainaiz.

- **Zergatik du Elgoibarko eskubaloiak horrelako arrakasta?** -Arrazoi bakarra dago, beti egon da base bat eta base horri jarraipen bat eman zaio. Entrenatzaile talde polit bat dago eta jendea gustura dago, ambiente ederra baita dago. Gainera, eskubaloia irtenhide bat izan daitekeela ikusten dute askok, hau da, kanpora joan daitezkeela.

• Ekloturisten irteera ekainaren 4an

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 4an, izango da XXII. zikloturista irteera. Goizeko 9:00etan Txankakua zubitik abiatu eta honako ibilbidea egingo dute txirringuluariek. Ibilbide luzea: Elgoibar, Deba, Itziar, Zurnaia, Getaria, Zarautz, Meagasa, Aizarnazabal, Aizarna, Erdoitza, Errezil, Bidania, Beizama, Nuarbe, Urrestilla, Azpeitia, Azkoitia, Elosu, Gorla, Bergara, Soraluze eta Elgoibar. Guztira 122 km. dira. Ibilbide motza, berriz, honakoa izango da: Elgoibar, Deba, Itziar, Zumaia, Getaria, Zarautz, Meagasa, Aizarnazabal, Zestoa, Azpeitia, Azkoitia, Elosu, Gorla, Bergara, Soraluze eta Elgoibar. Guztira 92 km. Nahiz duen edonork har dezake parte.

• Eskola Kirolaren oinpiadak Deban jokatuko trra zapatuan, hiaren 3an

Eskola Kirolaren ikasturteari amaiera emateko asmoz, zapatuan, hilaren 3an, alebin mailako lehenengo olinpiadak jokatuko dira Deban, Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutrikuko hurrek hartuko dute parte. Pilar, Heni Eskola, Elgoibarko Ikastola eta Mendaroko ikasleekin bi talde osatuko dituzte eta Mutrikuko eta Debako ikasleen aurka neurtuko dituzte indarrak. Parteahartzaile guztiek domina bana jasoko dute eta bazkaria ere eman goga.

Besteak beste honako kirol hauetan hartuko dute parte kirolari guztetxoek: hondartza futbola (10:00etan), pilota (10:00etan), patinaje lasterketa (11:30ean), krosa (12:00etan), eskubaloia (15:30ean), soka-tira (17:00etan)... Datorren urtean Elgoibarren egingo dira olinpiadak.

Darka Garate Impeldunorde Espainiako Lutxa Libre Txapelketan

Andoni Garciak 3. postua eskuratu zuen 50 kg.-z a7piko kategorian


▮ bai Klubeko 4 lagun, Gorka Garate, Andoni Garcia, Xabi Gonzalez eta Josu Idiakez, hain zuzen ere, Granadan izan ziren pasa den maiatzaren 12tik 14ra bitartean. Bertan, Espainiako Lutxa Libre Txapelketan hartu zuten parte. Emaitzarik onena Gorka Garatek eskuratu zuen, 85 kg.-z azpiko kategorian txapeldunorde geratu baitzen. Kanariar Irletako eta Asturiaseko txapeldunei erraz irabazi ostean, Andaluziako ordezkariaren aurka lehiatu zen finalerdietan. Arazorik gabe irabazi zuen eta Galiziako ordezkariaren aurka borrokatu zuen finalean, txapelketa irabazteko faborito nagusiaren aurka, alegia. Espainiar nazionalitatea eskuratu duen Errusiarra da galiziarra, eta Gorkak ezin izan zion irabazi. Bestalde, Andoni



Argazidan, ezkerretik hasita: Andoni Garcia, Xabier Gonzalez, Gorka Garate eta Josu Idiakez.

Garciak hirugarren postua eskuratu zuen 50 kg.-z azpiko kategorian. Xabier Gonzalez eta Josu Idiakez, berriz, 5. izan ziren junior mailako txapelketan.

Kadete mailako Elgelhapy futhol taldea mailaz igo da



Urte benetan beltza izan da aurtengoa Elgoibarko futbolarentzat; Haundiak maila galdu du, erregionalekoekin izandako arazoak... Dena dela, izan da salbuespenik ere, kadete mailako futbol taldeak liga txapelketa irabazi baitu. Elgoibarko futbol giroa alaitu duten bakarrak izan dira, garaipen borobil bat Iortu duen talde elgoibartar bakarra izan baita. Pasa den zapatuan, hilaren 27an, 3 eta 0 irabazi zuten hemaniarren aurka Mintxetan eta bide batez baita ligako lehen postua ziurtatu ere.

Txuskoren omenezko 3, Enduro Motokross Txapelketa jokatu da domekan, hilaren 4an



Memorial Txusko izenpean, Txusko Moto Klub' ak Elgoibar herriko 3. Enduro Txapelketa antolatuta du domekarako, hilak 4. Antolatzaileek 80-90 partehartzaile inguru izango dira adierazi digute, eta horietatik 7 herritarrak izango dira. Lasterketa goizeko 10:00etan hasi-

ko da Albitxurin prestatutako zirkuitoan. Elgoibarko proba Euskadiko Enduro Txapelketarako puntuagarria izango da. Lasterketak 4 kategoriaz izango ditu; juniorrak, seniorrak, beteranok eta hasiberrientzako sari berezia izango da.

enirMrl	
Areto Futbola	
Zur Ta Lur 15 - Puerto Pasajes 1 (Aulonom.)	
Eskubaloia	
Tecnamea Elg. 21 - El Pilar 15 (Kad. mut.) Pneumax Elg. 21 - Ei Pilar 20 (Jub. mut.) Amen. Zarautz 29 - EMH. Elg 31 (Senior mut.)	
Gipuzkoako Kopa	
Pagoaga Elg. 6 - Zarautz 5 (Kad. nesk.) Pagoaga Efg. 8 - Andoain 3 (Kad nesk.)	
Esku pilota	
Lagunak Pilota Txapelketa	
Guenetxea 18 - Bilbao 15 (Benj.) Etxaniz 18 - Arribillaga 16 (Benn) O.Txurruka 18 - Alguacil 5 (Alett.) Gomez 18 - Elustondo 16 (Aleb.) Salaberria 15 - Salazar 18 (Benj.) Garai 17 - Arribalaga 18 (Aieb.) Portu 18 - G. Zulaika 9 (Aleb.) E. Zulaika 18 - U. Larrañaga 7 (Aleb.) Utazia 18 - Loiola 16 (Kad.)	
Sigmako hapelketa	
Otaño/Loiola 16 - X. Loiola/Arrillaga 22 Anjel/Eneko15 - KarraVlander 22 Ansola/Agirrebeña 22 - Esnada/Balzola 15	
Idarraga kateak 3. saria	
HALINDIKU jokalarierreguEarrena 99/00	
JOKALARIA PUNTUAK	
1- Loren	35
2-Aranberri	33
3- Castro	29
4- Zulaika	28
5- Ibarluzea	27
6- Castello	26
7- Alberdi	23
8- Bague	22
9- Polo	21
10- I, Leonardo	17
11- Bravo	16
12- Diaz	15
13- Caro	14
14- Mikel	12
15- Ruiz	8
16- Guarrotxena	6
17- Manolo Ramos	4
18- Alkorta	4
19-Txasio	4
20-Edu	4
21- Fernandez	2
A O E 'N 'DA	
Areto Futbola, Mintxetan	
Larunhata, 3	
17:00 Zur Ta Lur - Arabako Txapelduna (Autonom.)	
Esku Pilota, Sigmako frontoian	
Ostirala, 1	
19:00 Osoro/Rojo - X. Loiola/Arrillaga	
19:30 Karral/ Lander - Otaño/J. Loiola	
20:00 Esnaolal/Balzola - Gerricka/Alzibar	
Asteartea, 6	
19:00 X. LoioWArrillaga - Karral/Lander	
19:30 AnjeVeneo - Osoro/Rojo	
20:00 Karnel/Egaña - Gerricka/Alzibar	

Ta Lury areto futboleko taldeak bigarren urtez jarraian irabazi Gipuzkoako Liga Autonondkoa

Espainiako Txapelketarako sailkatzeko partidua larunbatean, hilaren 3an, jokatuko dute Arabako txapeladunen aurka

Zur Ta Lur' areto futboleko taldeak azken jardunaldian irabazi zuen Gipuzkoako Liga Autonomikoa. 'Junta Puerto Pasajes' taldearen aurka Kiroldegian jokatu zuten azken partidua irabazi beharra zeukatenez zapatuan, hilaren 27an, eta elgoibartarrek ez zuten hutsik egin. Espainiako txapeladunordeak direla erakutsi zuten eta sekulako egurra eman zieten pasaitarrei. Joku erakustaldi bikaina egin oostean, 15 eta 1 izan zen azken emaitza. Aurtengo liga txapelketa emozioz beterikoa eta ezin orekatuagoa izan da. Ligako partidua guztiak jokatu ondoren, bi taldek 'Zur Ta Lur'ek eta sCabo Rojo'k puntu berdinekin amaitu dute. Elgoibartarrek 'gol-average-a', edo sartutako eta jasom-



'Zur Ta Lur'ekoek Liga Txapelketan guztira 165 gol sartu dituzte eta 54 jaso.

ko golen diferentzia, alde izan dutelako irabazi dute Liga Txapelketa. Guztira 165 gol sartu dituzte eta 54 jaso (+ 111 gol).

Euskadiko Txapelketa

Denboraldia ez da amaitu oraindik. Larunbatean, hilaren 3an, Espainiako Txapelketarako sailkatzeko balio duen joaneko partidua jokatu baita Zur Ta Lur' taldeak. Partidua, arratsaldeko 17:00etan hasiko da Elgoibarko Kiroldegian. Taldeko arduradunek zalegoaren laguntza ezinbestekoa izango dela adierazi digute eta herritarrei Kiroldegira joateko deia luzatu diete. Bigarren partidua Araban jokatu da. Kanporaketa hau gaindituz gero, A Coruñan jokatu den Espainiako Txapelketarako txarteia eskuratuko lukete Jon Pozuelok entrenatutako mutilek.

"Tecnomeca ElgoNiarn kadete nesken eskubaloia taldeak Gipuzkoako Kopa irahad du Plaza Handian

Pasa den larunbatean, hilaren 27an, "Tecnomeca Elgoibar" kadete mailako nesken taldeak Gipuzkoako Koparen finala jokatu zuen Deban. Final bitxia izan zen, 3 taldek hartu baitzuten parte. Taldeek 20 minutuko partiduak jokatu zituzten elkarren artean. Zarauzko eta Andoaingo taldeen aurka neurtu 71111Z-ten indarrak elgoibartarrek. Lehenengo partidua 6 eta 5 irabazi zuten Pagoagakok Zarauzko taldearen aurka. Bigarrena, berriz, 8 eta 3 irabazi zuten Andoaindarren aurka. Partidu honetan Maria Bilbatua atezainaren geldialdiak erabakigarriak izan ziren txapela Elgoibar aldera ekartzeko. Garaipen honekin denboraldi bikaina burutu dute Igor Lizarraldekin entrenatutako neskek, liga txapelketan txapeladunorde izan baitziren.



Elgoibarko Ikastolako eta Herri Institutuko ikasleek Ikaspilotak antolatutako kirol jaian hartu zuten parte pasa den astean. Euskal kirol tradizionalak gazteen artean bultzatzea edo ezagutaraztea da Ikaspilotaren asmoa, horretarako Gipuzkoa osotik pasa dira herriz herri. Ikasleek eurentzat ezezagunak ziren hainbat kirolean hartu zuten parte; "kontrabandistaren lasterketa" (sakua bizkarrean hartuta aintxintxika egitea), soka-tiran, gizon-proban, eta lokotx bilketa, besteak beste. Joku hauetan ez dago irabazle edo galtzailerik, euskal tradizioko kirol etajolasak berreskuratzea baita helburua.

BAZILERGOA BUKATU eta GERO zer ?



Gazte askok egingo du aurki selektibitatea eta horien buruetan batxilergoa amaitu ostean zer egin dezaketean ibiliko da. Unibertsitaterako bidea hartuko du askok, besteek goi mailako moduluak egingo dituzte eta izango da lanera edo beste zerbait ikastera joango denik ere. Aurretik dituzten urte horiek ahalik eta arinen pasatzeko hainbat aholku ematea pentsatu dugu.

- Unibertsitatean edo ikasteke berri batean sartzeak hainbat aldaketa ekarri ohi ditu, baina ikaslea oso denbora guixian ohituko da gauza berrietara, nahiz eta hasieran bestela iruditu.
- Ikasleek egiten duten errurik handienetako bat gauza guztiak institutu garaian bezala izango direla pentsatzea da.
- la unibertsitate eta goi mailako eskola gehienetan ikasgelak oso beteta egoten dira, masifikazioa ezinbestekoa da, batez ere hasierako urteefan, beraz, irakasleek ezin izan ohi diete ikasle bakohari arreta berezia eskaini.
- Ikasleek jakin beharreko beste gauzetako bat, ikasgelan azaldutako teoriak, oinarriko azalpenak baino ez direla da, ondoren ikasleak berak osatu beharko ditu apunteak liburutegiko testuekin. Gainera, ikasgaia hasi aurretik ikasle askok ez du jakiten asignatura horrekin zer jakintza jasoko dituen.
- Sarritan hainbat lanbide idealizatu egiten dituzte gazteek, eta praktikan ez dira uste bezain gogokoak edo errazak.
- Horretaz guztiaz gain, ez dituzte unibertsitateko eta eskolako zerbitzuak ezagutzen eta lehenengo lauhilabeteen behinizat nahiko galduta ibiltzea oso ohizkoa da.

Hilabete guztietan kaleratzen da enpleguari buruzko rankina. Hau da, enpresek gehien eskatzen dituzten ikasketen zerrenda. Guk lehenengo hamarrek esango dizkizuegu. Honen arabera argi eta garbi ikusten da zerbitzuen alorra eta industriarena direla behar gehien dituztenak.

- | | |
|---|--------------------|
| 1. INJINERUTZA TEKNIKO INDUSTRIALA | (Unibertsitatea) |
| 2. ENPRESEN ADMINISTRAZIOA eta ZUZENDARITZA | (Unibertsitatea) |
| 3. INJINERUTZA INDUSTRIALA | (Unibertsitatea) |
| 4. EKONOMIA | (Unibertsitatea) |
| 5. ERAIKUNTZA eta OBRAK | (Lanbide Heziketa) |
| 6. INJINERUTZA INFORMATKOA | (Unibertsitatea) |
| 7. ADMINISTRAZIOA eta MERKATARITZA | (Lanbide Heziketa) |
| 8. ARKITEKTURA TEKNIKOA | (Unibertsitatea) |
| 9. TELEKOMUNIKAZIOETAKO INJINERUTZA | (Unibertsitatea) |
| 10. INJINERUTZA TEKNIKO INFORMATIKOA | (Unibertsitatea) |

Injinerutza nagusi

IU Skal Bernani ei'H.C1 Espainiako beste toki batzutan egiten dituzte ikasketak gazte elgoibartan'ek eta badira atzerrira joaten direnak ere. Espainian guztira 170 karreratik gora ikas daitezke eta 700 espezialitate eskaintzen dituzte. Gero eta gehiago dira karrera laburrak ikasten dituzten gazteak, diplomaturek indar handia hartu dute lizentziaturen aldean.

Gu Herri Institutuko orientatzailea den Marijo Garmendiarekin izan gara eta bere esanetan ikaslegoaren zati handi batek unibertsitatera jo beharrean goi mailako ziklo formatiboen aldeko apostua egin ohi du. "Bi urtetako ikasketak dira eta gainera praktikak egiten dituzte enpreetan. Horretaz gain, ikasleek ikusten dute lan arloan irtenbide asko daudela eta alde praktikotik begiratura era honetako ikasketetarako bidea hartzen dute".

**"ikaslegoaren zati handi batek unibertsitatera jo beharrean goi mailako ziklo formatiboen aldeko apostua egin ohi du".
Marijo Garmendia**

i Unibertsitatera joaten direnen artean, berriz, Injinerutza tekniko da gehienek aukeratzen dutena. Marijo Garmendiaren esanetan, "Injinerutza da karrera guztietan errege. Teknikotik goi mailako injinerutza egitera pasatzeko aukera dago eta gure ikasle askok hartzen du bide hori. Enpresa munduarekin zerikusia duten ikasketetarako ere eskari asko egoten da. Gero eta gutxiago dira, ordea, magisteritza, kazetaritza, filosofia eta era horretako karrerak hartzen dituztenak. Hauek ez dute lana bermatzen eta gazteak ez daude prest lau edo bost urtetako karrerak ikasi eta gero lanik gabe egoteko".

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia 943 032610
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anommoak 943740385
 D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
 Gurutze Gorria 943 743864
 Ilendaroko Ospitalea.. 943 032800
 Odol Emaileak .. 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak. 943 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia . 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua... 943 744366
 Udal Kirol Patronatua. 943 744415
 Kultura Zerbitzua.. 943 742158
 Mendaroko Udala. .. 943 756100
 Ongizate zerbitzua ... 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa... . 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza. 943 740296
 Zaharren Biltokia . 943 740526

I KASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) ... 943 74 08 80
 Herri Eskola . 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Institutua
 Arreiturre 943 74 80 19
 Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN..... 943 74 41 12
 El Diario Vasco 943 74 40 73
 El Correo Español. 943 74 10 82
 Zazpiki irratia . 943 74 34 74

4 igandea

9:00 ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Txankakua zubi tik
 Antolatzailea: Elgoibarko Lagun Taldea

10:30 FINALISTA EGUNA

San Pedron
 Antolatzailea: Morkaiko Mendizale Etkarte

10:00 ENDURO TXAPELKETA

Albi txurin
 Antolatzailea: Txusko Moto Klub

16:30 ZINEA
 "Jack Amazonasko errege"
 (Euskaraz)

18:45 GELATXO ORKESTRAREKIN DANTZALDIA
 Plaza Handian

19:30-22:15 ZINEA
 "Scream 3"

5 astelehena

19:30-22:15 ZINEA
 "Alien Resurrección"

..asteartea..

19:00 **DEBABARRENEKO ESKOLARTEKO XVI. ANTZERKI ERAKUSKETA**
 Antezlanak: "Goiz: hat ostatuan" eta "Azkeneun iritsi da ezkontza eguna"
 Herriko Antzokian

El osteguna

15:00 **IKUSENTZUNEZKOA**
 "Mendebaldeko herriaIdeen elikadura ohitura desegokien ondorioak"
 Hizlaria:
 Ane Miren Uranga
 Kultur Etxean
 Antolatzailea:
 DEBABA euskaltegia

9 ostirala

17:00 **HARAGI GISATU LEHIAKETA**
 Jubilatuen Biltokian

22:15 ZINEA
 "Biziaren arbola"
 (Euskaraz)

22:15 ZINEA
 "Scream 3"

larunbata

12:00 **ZAZPIKIREN BATZARRA**
 Ganbaran

19:30-22:15 Zinea
 "Scream 3"

NEVE CAMPBELL



Zuzendaria: Wes Craven.
 Antezleak: Neve Campbell, Courtney Cox, David Arquette.

"Scream 3"

Wes Craven, Freddy Cruegger-en sortzaileak eta beldurrezko fiimeen erregeak, Scream (garrasia) filmearen hirugarren zatia pantailaratu du. Oraingoan Hollywood-en kokatu du ekintza. Bertan, beldurrezko filme bat egiten ari direla hilketa cidoltsuk eta misterioitsuak bata bestearen atzetik gertatuko dira. Lehen bi Scream-etatik bizirik ateratzea lortu zuten protagonistek ez dute lan erraza izango burua lepo gainean mantentzeko.

• **Finalista Eguna San Pedron izango da igandean, ekainak 4**

Morkaiko Mendizale Elkar-teak urteroko ohiturari jarraituz, Finalista Eguna antolatuta du. San Pedron izango da domekan, hilak 4. Goizeko 10:30ean, meza nagusiarekin emango zaio jaiari hasiera San Pedroko Baselizan. Eguerdiko 12:30ean, 1.999an igotako mendiei dagokien domina-banaketa egingo da, sei ataletan sailkatuta. Jarraian, Haritz Dantzari Taldeak eta Udalaren Txistulari Taldeak agurra eskainiko die domina irabazleei. Dominen banaketa ostean, 14:00etan, bazkaria izango da San Pedro Tabeman. Ondo jan ondoren, V. Morkaiko bolo txapelketari hasiera emango zaio. Egunean zehar Mauxitxa Txarangak giroa berotuko du eta gerturatzen diren haur guztiek Zuhaitz Aisialdi Taldearekin arratsaldea jolasean igarotzeko aukera paregabea izango dute.

• **Mpuzkoako 31. Hiru Txirloko Solo Txamiketa San Migelen jokatu da**

Bihar, hilak 3, Gipuzkoako Hiru Txirloko Bolo Txapelketa jokatu da San Migelgo bolatokian. Honako hau 31. edizioa izango da eta eguerdiko 13:00etan hasiko da. Bazkal ostean maila guztietako Gipuzkoako txapeldun beniei trofeoa banatuko zaie. Sari banaketaren ondoren, bertsolariak eta soinujoleak alaituko dute giroa. Egunean zehar Manuel Zabala eta Valentin Ibaducea bolo jokalariek omenakii beroa jasoko dute. Parte hartu nahi duten guztiek 943 20 07 77 telefonora deitu.

• **Joseha Esnaolaren margoak Jubilatuen Mitddan ikusgai**

Joseba Esnaola "Jose Quintana" margolari elgoibartarrak Jubilatuen Biltokian erakutsiko ditu bere koadroak eta poesiak. Margo erakusketa ekainaren 5etik 16ra izango da ikusgai. Duela gutxi Kultur Etxean erakutsi zituen bere margoak, baina ikusteko aukerarik izan ez bazenuten orain duzue aukera paregabea.

• **Euskal Eskola Publimaren jaira joateko autobusak**

Euskal Eskola. Publikoen jaira Donostian (Anoetan) izango da datorren ekainaren 11n. Elgoibartilc autobusean joan ahal izango da, goizeko 10:00etan irtingo dira autobusak Plaza Handitik. Izena emateko Herri Eskolara edo Elgoibarko Izarrara joan. Nagusientzako prezioa 1.000 pta. koa da, eta 12 urte-tik beherakoek 500 pta. ordandu beharko dituzte.

• **"Jack Ammonaseko errege" eta "Biziaren arbola" filmeak Znea Euskaraz egitasmoan**



Udaleko Euskara eta Kultura Batzordeek Zinea Euskaraz bultzatzeko egitasmoarekin jarraituz, bi filme eskainiko ditu ekainean. Haurrei zuzendutako "Jack Ammonaseko errege" filma izango da lehena ekainaren 4an, domekan, Herriko Antzokian. Bigarren filma, berriz, helduel zuzendutakoa izango da, Farhad Mehranfar zuzendari irandarraren "Biziaren arbola" (gazteleraz "El arbol de la vida" izenburuduna). Ekainaren 9an, ostiralean, gaueko 22:15ean eskainiko dute filma hau Herriko Antzokian. "Biziaren Arbola" filmean, irudi ederren bidez, Talesh mendi zoragarrietako baso lainotsuetan bizi direnen bizimodua agertzen da: jaiotza, maitasuna, heriotza, urtarok, bizitzaren gorabeberak eta bizirik irauteko ahaleginak.

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
3	Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean)	
4	Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean)	
5	Fernandez Fernandez	
6	Yudego Yudego	
7	Zabaleta Zabaleta	
8	Etxeberria Etxeberria (Errosario kalean)	
9	Escala	Escala

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
J. IGNACIO FERNANDEZ Herriko enparanta 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA
 4 igandea Idarrağa

egitaraua

T O

TXE
TA5ENA

Pedro Muguruza 8, behea
 Tel. 943 74 19 48

ekainak 16,
 r XO Lia
I1

IKER TELLERIA kantaria

ekaina (22,

ANTZERKIA
 Irakurle anbulanteak taldea'

e(cinc) 23,

SAN JUAN AFARIA

KC1 k 29,

BORDAXURI

Iparraldeko musika taldea

f
 ELGOIBARKOKIZARRA

ZEZEN-BIDE

A UTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



100% Oerr6

Gazte Ty.i.nr..d(iY(-frt'1r



San Frantzisko, 43-1 ■ Tel: 943 74 27 20 ELGO1BAR ■ Ego-gain, 2 behea (sarrera S. Andres ibilbidetik). Tel: 943 20 34 45 E1BAR

I. Urteurrenako Menu Berezia

Langostitioak plantxan

Zapo txikia labean erreta

Ahate confit-a gereziekin

Intxaar bisquit-a txokolate beroarekin

Kafea eta ardoa

Prezioa: 4.700 pta. + BEZr

Beicauste9i
Ba ser ria

JATRTX EA

San Migel Gaina z/g • Tel. 943 74 31 02



Belaustegi Baserriak bere **I.Urteurrenean**, eduki duen harrera ona eskertu nahi die bezero eta lagun guztiei. Hori dela-eta, iNtenu **Berezial** prestatu du astelehenetik, hilak 5, igandera arte, hilak

BIZITZEKO ERA



.4(2)? —

Maala

Estilo berritzailea duen ingurua sortu nahi dugu. Gaur egungo bizitzeko erari konponbide berriak eta behin-betikoak eskaintzen dizkiogu. Apartamentuak 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Terraza zabaleko duplex-ak*Etxebizitzak lorategiarekin. Garajeak*Trastelekuak eta saio kietarako lokalak.



**28 ETXE GELDITZEN DIRA LIBRE.
HASIERAKO PREZIOAK MANTENTZEN DITUGU.**

Argibideak eta salmenta: obran bertan



943 74 24 00

Sustatzailea:

**MENDIBIL
ELGORRIAGA,
A.I.E.**

Eraikitzailea:

CONSTRUC~ALS.A.